

Informazio

Agerkaria

227

2014ko
otsaila
febrero
2014

Boletín

Informativo



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuak
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya

Download

**JABETZA INTELEKTUALA:
LEGEZKO ESTEKAK**



Disjurex



Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, **¡ LO TENEMOS !**

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. **944 255 220 ó 902 540 992.**

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de:
Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

SÍGUENOS EN:



Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

Egileei emandako jabetza intelektualaren babesaren haiekin lurraldean xede horretarako emandako legeen arabera da. Hori dela eta, baliteke herrialde bateko egileen eskubideak beste estatu batzuetan berdin araututa ez egotea. Egoera horren eraginez, litekeena da argitaratutako lanen legeko muga nahiko lausoa izatea, batez ere gaur egungo munduan, Interneti esker herrialde desberdinetako lanak oso erraz eskuratu daitezke eta. Nahaste hori arintzeko, gobernu askok nazioarteko akordioak sinatu dituzte, eta horien bidez legez adostu eta desberdintasunak gaituzte nahi dituzte jabetza intelektualari buruzko araudietan. Modu horretan, mundu osoko lanetarako sarbidea eta lanen erabilera modu uniformeagoan arautu nahi da.

Egileen eskubideen tratamenduan zeuden desberdintasunak murrizten ahalagindu zen nazioarteko lehenengo akordioetako bat literatura- eta arte-lanen babeserako **Bernako 1886ko Hitzarmena** izan zen. Victor Hugo egile frantses ezagunak hitzarmen hori egiten lagundu zuen. "Les Misérables" lanaren egileak eta beste egile batzuek ziur egon nahi zuten haien eskubideak beste herrialde batzuetan ere errespetatuko zirela, eta ez egilearen sorterrian bakarrik.

Bernako 1886ko Hitzarmenetik aurrera, herrialde sinatzaileetako egile nazionalak eskubide erkide batzuk dituzte hitzarmena sinatu duten 160 herrialdetan baino gehiagotan. Bernako Hitzarmeneko estatu kide bakoitzak babes berbera eskaini behar die beste estatu kide batzuetako egileen obrai eta egile nazionalari, salbuespenak salbuespen, hala nola "eperik laburrenaren araua". Horren arabera, estatu kide batek ez ditu babestu behar atzerriko egile baten lanak lanok egilearen sorterrian emandako babes-aldiaz harago.

Hitzarmen horren eta izan dituen aldaketan osten, nazioarteko araudi askok mundu osoan egile-eskubideak eta horri lotutako eskubideak arautzen dituzte. Gure herrialdean eraldaketa askok gaia jorratu dute, eta oraintsu Jabetza Intelektualaren Legearen eraldaketa izan dugu, otsailaren 14an onetsitakoa. Hala ere, orain arte, ahalagindu arau-erakunde horrek ez ditu ase ukitzen dituen guztiak eta babestu edo baimendu nahi dituen jardun guztiak, batez ere, teknologia berrien bidez komunikabideak garatu eta bat-batekoak eta neurrigabeak diren garai honetan. Komunikabideak arautu nahi dituzten prozesu legegileak baino azkarrago bilakatzen dira. Berrito ere, auzitegiek eskubide arautuaren edukia osatu beharko dute, interpretazio berezia eginda eta eskura dituzten arauak aplikatuta.

La protección de la propiedad intelectual concedida a los autores depende de las leyes dictadas al efecto en su entorno territorial. Por ello, los derechos de los autores de cada país pueden no estar igualmente regulados en otros Estados. Esta situación puede llevar consigo que el límite legal del uso de las obras publicadas, resulte algo confuso, sobre todo, en un mundo en el que se puede acceder a las creaciones de autores de diferentes países, con gran facilidad a través de Internet. Para reducir esta confusión, muchos gobiernos han firmado acuerdos internacionales que intentan consensuar sus leyes y limar las diferencias entre sus normativas sobre propiedad intelectual regulando, así, de una manera más uniforme, el acceso y uso de las obras en todo el mundo.

Uno de los primeros acuerdos internacionales que intentó reducir las diferencias de tratamiento de los derechos de los autores en los diferentes países fue el Convenio de Berna de 1886 para la protección de obras literarias y artísticas. Victor Hugo, el famoso autor francés contribuyó a la creación de ese Convenio. El autor de "Los Miserables" y otros creadores querían asegurarse de que sus derechos se respetasen en otros países y no sólo en el país de origen del autor.

Desde la adopción del Convenio de Berna en 1886, los autores nacionales de los países firmantes, disfrutaban de una serie de derechos comunes en los más de 160 países que han firmado el Convenio. Cada Estado miembro del Convenio de Berna tiene que ofrecer la misma protección a las obras de los autores de otros Estados miembros que la que ofrece a las obras de sus autores nacionales, con alguna excepción como la llamada "regla del plazo más corto". Según ella, un Estado miembro no está obligado a ofrecer protección a obras de un autor extranjero durante un periodo de tiempo superior al periodo de protección concedido, a esas obras, en el país de origen del autor.

Desde la firma de este Convenio, con sus posteriores modificaciones, muchas han sido las distintas normativas internacionales que regulan, en todo el mundo, los derechos de autor y derechos conexos. Muchas han sido las reformas que, en nuestro país, han tratado la materia hasta llegar a la reciente reforma de la Ley de Propiedad Intelectual aprobada el pasado 14 de Febrero. Sin embargo, hasta el momento, todo ese esfuerzo normativo nunca ha satisfecho a aquellos a quienes afecta y cuyas actuaciones pretenden proteger o permitir, especialmente, en un contexto en el que el desarrollo de las comunicaciones con las nuevas tecnologías, alcanza una inmediatez y dimensiones desmesuradas que evolucionan a un ritmo mucho mayor que el de los procesos legislativos que pretenden regularlas. Serán los Tribunales, una vez más, quienes deban conformar un contenido determinado del derecho regulado, mediante su particular interpretación y aplicación de las normas a su alcance.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea

Decano Carlos Fuentesnebro Zabala
Javier Bolado Zárraga
Ana Bermejo Arteagabeitia

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea

Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzárrega Zamalloa

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Luis María Milá Sagnier
Mutualista desde 1972

Invierte tus ahorros y disfruta
de un **sueldo extra** toda la vida
contrata **Renta Vitalicia Remunerada**

Mercedes Sala Par
Su cónyuge



El **Seguro de Renta Vitalicia Remunerada** es una forma **segura, rentable y muy atractiva** de invertir tu dinero. Tú y tu familia, tendréis la tranquilidad de contar con unos **ingresos adicionales gestionados** por una entidad solvente.

**MÁS
RENTABILIDAD**

4,86%¹ rentabilidad garantizada para 2014

**EXCELENTE
FISCALIDAD**

**1,68%² frente al 21% en el resto de
productos de ahorro**

LIQUIDEZ

Permite recuperar la inversión³

www.mutualidadabogacia.com



Para más información llama al 914 35 24 86
o envía un correo a buzon@mutualidadabogacia.com

1 Sin deducir costes del seguro.

2 Tributación para mayores de 70 años.

3 Dependiendo de la modalidad de contratación.

2014ko otsaila

06

BERRIAK

07

INFORMAZIOA

Berritzu Hezkuntza Elkartea: neurriak betetzeko zerbitzua

Doako laguntza juridikoaren eskubidearen alde

Konkurtsoen atsekabeak

Jabetza intelektualaren informazioaren gizartean, "legezko estekak" eta Svenson kasua

15

JARDUNALDIAK

Lurzoru klausulei buruzko jardunaldia

22

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

24

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

KULTUR ERANSKINA



8




11



12



15



26



28


MUTUALISTEK PLAN UNIBERTSALEAN %5,30EKO ERRENTAGARRITASUNA JASOKO DUTE 2013KO EKITALDIARENGATIK

2013ko ekitaldian, Mutualitateak inbertsioen %5,89ko errentagarritasun garbia lortu du, hau da, %5,30eko errentagarritasuna Plan Unibertsale-rako. Horrek esan nahi du behin urteko kontuak onartuta, mutualistek errenta osagarriaren %0,8 jasoko dutela, hiruhileko bakoiztean aurreratu-tako %4,50ez gain.

Lortutako etekinak oso onak dira aldi horretako inflazioarekin (%0,3) alderatuz gero. Horrek esan nahi du inbertsioen benetako errentagarritasuna %5ekoa izan dela mutualistentzat, Plan Unibertsala eratu zenetik handiena.

Mutualitateko aktiboen zorroaren banaketa

Abenduaren amaieran, Mutualitatearen zorroa honela banatzen da: inbertsioen %82,35 errenta finkoan, %5,17 errenta aldakorrean (akzioak eta inbertsio-funtsak), %11,32 zuzenean kudeatutako higiezin inbertsioetan, eta %1,16 gordailuetan eta diruzaintzan. Ikus daitekeenez, banaketaren profila oso kontserbadorea da, eta segurtasun maila handiko etekinen alde egiten du.



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Rentabilidad	5,81	6,35	6,44	5,72	5,31	5,15	4,70	5,15	5,30
Inflación	3,7	2,7	4,2	1,4	0,8	3	2,4	2,9	0,3

Errentagarritasun igurikimenak 2014rako

Mutualitateko inbertsioen zorroaren osarari erreparatuta, Mutualitateak %4,50 ordaintzen jarraitu dezake

errentagarritasun moduan, Plan Unibertsalaren kontura, 2014ko lehen hiruhilekorako. Beraz, ekitaldi honetarako helburua da urte amaieran errentagarritasuna %5 inguru izatea. ●

POZTASUNA BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUNEAN BIZKAIKO ABOKATU BAT MAULA DELITU BATEGATIK KONDENATZEN DUEN EPAIA DELA ETA

Bizkaiko Abokatuen Bazkunak pozik hartu zuen Bizkaiko Probintzia Auzitegiak emandako epaia. Horren bidez, Bizkaiko abokatu bati 4 urte, 9 hilabete eta egun bateko espetxe-zigorra eta ohiko lanbidean aritzeko desgaitasun ezarri zaizkio immigranteen talde handi batekin behin eta berriro maula delitua egiteagatik.

Abokatuari **baja eman zitzaion Bizkaiko Abokatuen Bazkunean 2012ko abenduaren 27an**. Aurretik ere antzeko egitateengatik kondenatu zuten, eta berrorerlea zenez, azken prozesu judicial hau izapidetzen zen bitartean aurreneurritz espetxeratuta zegoen.

Bi prozeduretan, **Bizkaiko Abokatuen Bazkuna** akusazio partikular moduan aurkeztu zen, eta abokatuaren kondenatzea eskatu zuen, maula delitua behin eta berriro egitea leporatuta. Horrez gain, abokatuaren lanbide desgaitasuna eskatu zuen.

Izan ere, erakundea eta kolektibo profesional osoaren jarrera da mota horretako jardunen aurrean tolerantziarik ez izatea. Izan ere, delitua izateaz gain, sentikortasun deontologiko eta etikoei eraso egiten diete, jarrera horien bidez –irabazteko gogo ez-legitimoa oinarri hartuta– pertsona zaurgarrienen eta babesgabeenen egoeraz

aprobetxatu nahi baita.

Jokabide horiek **Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren** gaitzespena eta zehapena izango dute beti. Hain zuzen ere, Bazkuna gaur egun guztiz gaitzesgarriak diren jokabide horiek egiten dituzten elkargokideak auziperatzea bultzatzen ari da, baita Fiskaltzak akusaziorik egiten ez duen kasuetan ere edo Epaitegiak jardunak artxibatzea agintzen duenean ere. Modu horretan erakutsi nahi du **Bazkunak interesa duela kideen jokabide desegokiak errotik erazteko**. ●

BERRIZTU HEZKUNTZA ELKARTEA: NEURRIAK BETETZEKO ZERBITZUA

Marisa Salvador

AEBko hezitzailea

2001. urtean Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Legea indarrean sartu zenetik, Eusko Jaurlaritzak, Berriztu Hezkuntza Elkartearekin (BHE) sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko Medio Irekian exekutatu dituen neurri judizialak, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, hain zuzen ere.

BHE barruan asko eta asko izan dira, eduki zehatzailea duen 5/2000 Legearen espirituaz baliatuz, laguntza eskaini zaien adin txikikoak; zentzu horretan, unean-uneko neurri egokiaren bidez eskaini diegu laguntza: zaintzapeko askatasuna, gizarte eta hezkuntzako egitekoak, erkidegoaren aldeko prestazioak, tratamendu ambulatorioa, elkarbizitza familiarrekin edota hezkuntza-taldearekin, asteburuetako egonaldiak etxean bertan.

Dakizuen legez, askatasunaz gabetzen ez duten neurrien artean, zaintzapeko askatasuna da ohiko neurrietako bat. Neurri judizial hori oso zabala da, hezkuntzari dagokionez; izan ere, esku-hartze ugari dakar adin txikikoen bizitzan: familiako esku-hartzea, prestakuntzako, lanekoa, biologikoa eta gorputzekoa, psikologikoa eta soziala, afektiboa eta aisialdikoa. Esku hartze hori Banakako Hezkuntza Proiektuaren bidez gauzatzen da; horren bidez, adin txikikoen gizarteratze eta normalizaziora bideraturiko helburuak ezartzen ditugu.

Duela urte batzuetatik hona, Eusko Jaurlaritzak bitartekaritza penal sustatzeari ekin dio gatazkak ebazteko orduan; hau da, erantzukizunaren egozketa, eta adin txikikoaren eta biktimaren arteko kontziliazioa-konponketa, azken horri dagokion protagonismoa emateko. Gaur egun, gai horretan sakondu nahian gabilta, bai exekuzioan, bai garapenean, aurrera egin eta hobetzeko.

Adin txikikoa arestian aipatu neurrietako bat betetzen hasten denerako, prozesu guztiak bukatuta egon ohi dira, hala nola, poliziala, penala eta ahozko epaiketa. Prozesu erabat ezezaguna gaztearentzat: bai formari dagokionez, bai hizkuntzari dagokionez... Babesa eman beharreko adin txikiko

baten aurrean gaude; baina sarritan, azken hori guztiz galduta egon ohi da, prozesu guztia urrunetik eta modu inper-sonalean biziz.

Gure aldetik, kolektibo horren aurreko moldagarritasunaren aldeko deia egin nahi dizuegu, defentsan diharduen abokatuaren irudia eta haren pertzepzioa hobea izan dadin, gizatiarragoa eta hurbilagoa alegia.

Beraz, une garrantzitsua da oraingo hau guretzat; azken urteetan egindako ibilbidearen eta bizi izandako esperientzien ostean, adingabeen jurisdikzioak aurrera egin badu ere, argi daukagu oraindik asko dagoela egiteko: tratamendu egokiari dagokionez, epaitegietan eta polizien egoitzetan egokitutako asistentzia emateari dagokionez, eta adin txikiko horiek erraz ulertzeko moduko eta beraien gaitasunen arabera egindako defentsari dagokionez.

Bizkaiko Abokatuen Bazkunak lan izugarria egin du adin txikikoen arloan, Ofiziozko Txanda Espezializatuaren bidez. Hori horrela, tutoretzapeko adingabeen kasuan ere Txanda berria sortuko delakoan gaude, gazteen asistentzia juridikoa bermatzeko eta/edo hobetzeko.

Eta zer esan laguntasunik gabeko adingabe atzerritarrei buruz; izugarritzko zailtasunak bizi ohi dituzte. Harresiak Apurtuz-en parte hartuz, eta BHEk Arartekoarekin izandako lankidetzari esker, legean dauden hutsune guztiak bete nahian gabilta, hala hezkuntzakoak, nola juridikoak. Bide horretan, egunero-egunero egiten dugu topo adin txikikoekin, gure gizarte sistemaren babesik ez duten gazteekin, alegia.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, urte hauetan guztietan makina bat laguntasun jaso dugulako, bai abokatuen aldetik, bai Adingabeen Ofiziozko Txandaren aldetik, eta baita Atzerritarren Ofiziozko Txandaren aldetik zen Txanda horretatik kanpo; izan ere, azpimarratzekoa da erakutsi duzun profesionaltasuna eta borondatea, hala Epaitegietan, nola 5/2000 Legearen oinarrizko printzipioaren defentsan: adin txikikoaren gaineko goreneko interesa.

AKATSEN ZUZENKETA

Agerkariaren azken zenbakian (226. zk.), maketazio errakuntza bat egon zen eta, horren ondorioz, Rafael Pedro Castrillo Martínez lankidearen artikulua –“Derecho al aborto y Boletín del ICASV”, 10. eta 11. orr.– ez zen osorik agertu.

Horrenbestez, gure lankideari barkamena eskatu nahi diogu. Arikulua oso-osorik duzue ikusgai aldizkariaren edizio digitalean, hain zuzen ere, helbide honetan: www.icasv-bilbao/boletines.aspx.

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ESKUBIDEAREN DEFENTSAN

CARLOS FUENTENEBRO, BJABOko dekanoa



Oraintsu, El Correo egunkariak azalean argitaratutako albiste baten titularra hau zen: **HAINBAT ETA HAINBAT DELITUGILEREN ZIGORRAK MURRIZTU DAITEZKE OFIZIOZKO ABOKATURIK EZ DAGOELAKO**. Barruko orrialdeetan informazio hori zabaldu egiten zen, baina artikuluan zehaztugabetasun asko zeuden, baita baieztapen bidegabe eta okerrak ere. Modu desegokian jasotzen zen epaileek intsinuazioak egin zituztela zigor-prozedura batzuetan bidegabeko luzapenak egon direla, haien ustez, ofiziozko txandako abokatuek ordainsariak kobratzeko ezintasuna dugun kasuetan esku hartzeko aurkezten ditugun aitzakiengatik. Aitzakia horiek Batzordeak modu automatikoan onartzen zituen.

Bazkuna –eta lankide gehienak– El Correoko artikularen aurrean harrিতa eta haserre agertu ziren, eta berehala informazio hori argitzeko testu bat idatzi zen. Gure ustez, nahitaezkoa da testu hori zabaltzea eta aldi berean beste mota batzuetako neurriak hartzea.

Ildo horretatik, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Oho-retsuko (BJABO) dekanook eta Gobernu Batzordeak zenbait zehaztasun eta ñabardura gehitu nahi dituzte artikuluko horren aurrean:

Artikulu honen bidez doako justiziak Estatuan, Euskadin, eta zehazki Bizkaian duen egoeraren errealitatea jakitera eman nahi dugu, eta horrekin batera, denboran izan diren azken aurrekariak labur aipatu nahi ditugu.

Artikuluan esaten da delitu batzuetarako ofiziozko abokatuak izendatzeko atzerapenek erruztatuarentzat zenbait onura eta, beraz, biktimarentzat kalteak eragin dituztela. Zorroztasun gabezia nabarmenarekin adierazten da litekeena dela bidegabeko luzapenengatik aringarriak aplikatzea eta “*epaileen oharra eta kritikak*” jasotzea abokatuek laguntza eskatzeko duten betebeharrak profesionala urratzen dela jotzen dutelako.

Gaur egun, 2014ko otsailean, esan dezakegu azken bi urteetan egon diren disfuntzioak desagertzeko bidean daudela, BJABOk egindako negoziazio eta ahaleginen ondoren. Hori dela eta, harrিতa gaude artikuluan gaindituta dauden arazoak aipatzen direlako eta zorionez gaur egun ez dagoen egoera bat islatzen delako.

Beraz, artikuluko baieztapenak partzialak eta bidegabeak dira, baita zaharkituak ere. Eta horiei aurre egiteko, onena errealitatera jotzea da.

Modu partzialean ados gaude esaten denean duela bi urte sortutako egoeraren funtsezko arrazoiak bat izan zela Doako Laguntza Juridikoari buruzko 110/2012 Dekretua aldarrikatzea. Eusko Jauraritzaren aurreko Justizia Sailak aldarrikatu zuen, eta 2012ko irailaren 1ean jarri zen indarrean. Euskal Justizia Administrazioak azken hamarkadan egindako akats handietako bat izan da. Euskadiko abokatu hiru elkargoak eta Legelarien Euskal Kontseilua dekretua aldarrikatzearen aurka agertu ginen. Bere garaian iragarri genuen –eta zoritxarrez ondo ibili ginen– egoera hobetu beharrean doako justizia izapidetzeko atzerapenak eragingo zituela, prozesu judizialak motelduko zituela, justizapekoen eta legelarien defentsa-gabezia eragingo zuela, eta herritarrentzat burokratizazio handiagoa –ez da beharrezkoa inola ere– ekarriko zuela. Laburbilduz, 1996tik modu egokian funtzionatu zuen sisteman disfuntzionalitateak eragingo zituen. Ildo beretik, Eusko Legebiltzarrak ebazpen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Justizia Sailari eskaera egiten zitzaion dekretua ez aldarrikatzeko abokatuaren elkargoetan beharrezko adostasuna ez bazegoen. Justizia Saileko orduko agintariek ez zuten bete Legebiltzarreko agindua.

Amaitzeko, adostasuna bilatu gabe eta edukia hobetu gabe, dekretua aldarrikatu zen, eta hasiera-hasieratik, berori aplikatu behar zuten sektore guztiak aurka egon ziren. Dekretuaren xede bakarra zen **Justizia Administrazioak doako justiziara bideratu behar dituen kostuak murriztea**. Murrizketa horiek abokatuei jasanarazi nahi zitzaizkien, eta babesik gehien behar zuten herritarrei kalte egiten zitzairen.

Dekretua aldarrikatu ondoren, BJABO guztiz kritikoa izan zen. Ofiziozko Txandako Legelarien Biltzarren babesa izan zuen (Bizkaian 1.250 elkargokide baino gehiago). Biltzarrak aho batez erabaki zuen legelariak eta beharrezko neurriak hartzea. Horren guztiaren ondorioz, legelariak eta beste gizarte-indar batzuk justizia jauregien aurrean bildu ziren, OJZ aldi baterako itxi zen, eta Gobernu Batzordeak elkargokideek kasu batzuetan aurkez zitzaizkien aitzakiak onartu zituen. Neurri horiek bertan behera geratu ziren gaur egungo Justizia Sailer elkargoekin hitz egiten hasi zenean, dekretu berriak eragindako egoera konpondu nahian.

Testuingurua behar den moduan deskribatzeko, ikus ditugun Bizkaiko doako justiziaren gaur egungo egoerari buruzko datu batzuk:

Abokatuaren elkargoetako doako laguntza juridikorako zerbitzuak –bereko azpiegitura dute eta Administrazioak emandako diru-laguntzekin funtzionatzen dute– sistemen funtsezko pieza dira, herritarren eskabideak egiaztatzen eta behin-behinean doako laguntza juridikorako eskubidea

eman edo ukatzen baitute. Prozesu horretan, hainbat izapide egin behar dira (ofiziozko legelaria eta prokuradorea izendatu, tasa judicialak, adituenak, notarioarenak eta erregistroak salbuetsi...). Bada, 2011. urtean Bizkaian 6.845 espediente izapidetu ziren. 2012an 7.783 espediente izan ziren, eta iaz, 2013an, errekorra lortu zen, 9.559 espediente izan baitziren. Hau da, 2010etik, espedienteen urteko hazkundea %47,58 izan da, neurri handian aipatutako dekretua aplikatzeagatik. Horrez gain, ezin dugu ahaztu zoritxarrez bizi dugun krisi ekonomikoaren eragina, zalantzarik gabe eskabideen kopurua handitzen lagundu baitu.

Modu berean, 2013an 11.000 izendapen baino gehiago egin ziren guardiako txandan polizia-etxeetan atxilotuei eta guardia eta instrukzioko epaitegietan abokatuaren laguntza emateko.

Hiru urtetan espedienteen kopuruak gora egin duen arren (ia-ia %50), Bizkaiko Abokatuen Bazkunak azpiegitura-gastuetarako diru-laguntzetan %12 gutxiago jasotzen du. Horren eraginez, Bizkaiko OJZ guztiz gainezkatuta dago, eta orain arte inoiz gertatu izan ez diren atzerapenak gertatzen dira espedienteak izapidetzeko. Hau da, gehiago lan egin behar du bitarteko gutxiago erabiliz, eta baldintza kaskarra-goetan. Eta egoera desagoki hori larriagoa da Bilboko Justizia Jauregian ditugun instalazioak aztertuz gero. Izan ere, guztiz desagokiak dira urtean artatzen dugun pertsona bolumenerako eta ez dute inolako konfidentzialtasunik haien kontsultak egin eta espedienteak izapidetzera joaten diren pertsonentzat.

Ofiziozko txandan borondatez dauden legelariak, 2008ko baremoan onartutako zenbateko berbera jasotzeaz gain –hau da, izoztuta dago duela 6 urtetik-, dekretu berria aplikatuta gai askotan ordainsarien murrizketa bidegabeak gertatu dira, %25etik gorakoak. Aldi berean, defentsa gauzatzeko eta ordainsariak kobratzeko beharrezko burokrasiak gora egin du nabarmen.

Krisi egoeraren eta Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan izandako murrizketen eraginez, doako justiziaren kudeaketara bideratutako partida murriztu egin da azken bi ekitaldietan, onuradunen kopuruak gora egin duen arren. Eta hori gaur egungo Justizia ministroak aldarrikatutako Tasa Legeko gezur handia gorabehera: legea aldarrikatzea justifikatzeko adierazi zuen tasa judizialekin lortutako funtsak doako justiziaren sistemara bideratuko zirela, baina gaur egun baieztapen hori guztiz gezurra da, legea indarrean jarri eta urtebetetera sistema horretara ez baita euro bakar bat ere bideratu.

110/2012 Dekretuaren aurretik, Euskadiko abokatuen elkargoek eta legelariak, beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, puntualtasunez eta modu erregularrean jasotzen genituen doako justiziaren sistemari lotutako ordainketak. 2012tik aurrera, dekretu berriarekin, ordainketak 6 hilabete inguruko atzerapenarekin jasotzen hasi ginen.

Horiek adibide bakar batzuk dira doako justiziaren sistemaren gaur egungo benetako egoera erakusteko.

Jarrai dezagun aurrera. Artikuluaren arabera, ofiziozko legelariak izendatzen ez direnez, hainbat eta hainbat delitugiri-

leren kondenak murriztu egin daitezke. Eta puntu horretan, errespetu handiz diot, artikulua bi akats nabarmen egiten ditu.

Lehenengo eta behin, badirudi esaten duela elkargoek defentsarako konstituzio-eskubidea urratu dutela edo, nola edo hala, biktimei kalte egin zaiela. Baieztapen hori guztiz faltsua da. Bizkaian 2013an 11.000 legelari-izendapen egin dira atxilotuei laguntzeko. Eta inoiz ez, berriro ere esango dut, inoiz ez zaio utzi izendapenak egiteari. Artikuluaren atxilotu gabeko erruztatuentzat izendapenik egiten ez dela adierazten da, **baina gaur egungo dekretuaren arabera doako justiziaren izapideak erruztatuak egin behar dituen delituei** buruz ibiliko da, hau da, genero-indarkeriaren zenbait gai (biktimarentzat izendatzen jarraitu den arren), alkoholemiak, maulak eta adingabeen kasu batzuk. Egoera horietan, dekretuaren aurretik, erruztatuak ez zuen beharrik doako justiziaren izapideak egiteok eta, beraz, abokatuaren elkargoek legelaria izendatzen genuen berehala. Gaur egungo sistemarekin –hor egiten du porrot- delitu horren erruztatuak izapidetu behar du aurretik doako justizia. Eta hala egiten ez badu, kontraesana da elkargoek legelaria izendatu behar izatea erruztatuak doako laguntza juridikorako eskubidea aitortuta ez duenean, hori eskatzeko asmorik ez duenean eta administrazioak eta epaileek bermatu ezin dutenean legelariak lanaren truke ordainsaria jasoko duela. Akatsetatik eta aurreikusitako gabeko egoeretatik, mota honetako ondorioak ateratzen dira.

Bigarren. Artikuluaren arabera, badirudi legelaria ez izendatzeak erruztatuari mesede egin ahal diola bidegabeko luzapenen adingarria aplikatu daitekeelako, baina hori ez da inondik inora zuzena. Gertatu ez den eta gertatuko ez den –esan genuen- hipotesi bati buruz hitz egiten du. ZKren 21.6 artikulura bildutako aringarri hori aplikatzen da *izapidetzan atzerapenak aparteko izaera duenean, auziaren konplexutasunarekin proportzionala ez denean eta erruztatuaren jarrerari egozteko modukoa ez denean; kasu guztietan, epe luzeak eskatu ahal dira eta, beraz, hori planteatzea ez litzateke bideragarria izango*. Bidegabeko luzapenen aringarriak (horrela esaten zaio ikuspuntu juridiko-penaletik auzi penal baten izapidetza akusatua borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gelditzeari) bi dimentsio ditu: aringarri simplea eta aringarri oso kualifikatua. Auzitegiek aringarri simplea dagoela joz gero, akusatuari legean ezarritako gutxieneko zigorra ezarri ahal zaio (epaileei ematen zaien aukera da, zigorra graduatzeko ahalaren barruan, baita luzapena ez dagoen kasuan ere). Epaileek aringarri oso kualifikatua dagoela joz gero (atzerapen oso larri eta luzeetarako ezarri da), ondorio moduan akusatuari ezarri beharreko zigorra modu garrantzitsuan murriztu daiteke.

Bada, egunkariko titularrean esandakoa gorabehera, auzi penal baten izapidetzan izandako atzerapen guztiek eta mota guztietakoek ezin dute eragin zigor-zehapen bat murriztea.

Adierazi behar dugu praktikan epaileek eta auzitegiek ez dutela gogoko izaten aringarri hori aplikatzea (simplea izan arren). Auziaren izapidetzan oso larriak diren atzerapenen kasuetan soilik aplikatu ohi dute. Hori dela eta (Auzitegi Gorenak behin eta berriro errepikatutako jurisprudentziaren

arabera), zigor prozedura baten izapidetza judiziala zortzi, bederatzi, hamar edo hamaika urte (edo gehiago) atzeratzeak edo justifikaziorik gabe bi, hiru edo lau urtez geldituta egoteak justifikatu dute epai batzuetan akusatuari ezarritako zigorra asko murriztea. Salbuespen kasu horietatik kanpo, luzapenak zigorrean duen eragina oso txikia da.

Aurreko guztiaren ondorio moduan: kasu hipotetikoren batean Bizkaiko Abokatuen Bazkunak une jakin batean izandako jarrerak auzi judizialen baten izapidetzan luzapena eragin badu, atzerapen hori jurisprudentziak errudunari ezarri beharreko zigorrean murrizketa aplikatu ahal izateko gutxienezko bako askoz txikiagoa izan da.

Bidegabeko luzapenen arazoa ez da berria, ez zen duela urtebete sortu, askoz lehenago baizik. Izan ere, prozedura judizial batzuk, itxuraz inolako konplexutasunik ez dutenak, urte asko daramatzate epaitegi batzuetan izapidetzen (batzuk hamarkada bat baino gehiago), instantzia judizial batzuetatik bestera eramaten baitituzte edo epaiketak eta ikustaldiak ezartzeko atzerapenak baitaude, auzitegi batzuetan dagoen gehiegizko lan-zamaren eraginez, edo auzi penal batzuk egitateak gertatu eta hamar edo hamaika urte geroago epaitzen baitira. Horixe da, hain zuzen ere, aringarri horren arrazoia eta zioa.

Bitxia da abokatuen gremioari leporatzea izapide judizialetan dauden atzerapenak. Izan ere, guztiok dakigu legelariok lege prozesalean ezarritako epeak zorrotz bete behar ditugula epaien aurkako errekursoak aurkezteko, autoak aurkaratzeko, jardunen deuseztasuna eskatzeko edo ebazpen judizialak argitzea eskatzeko. Inoiz ere ezin dugu argudiatu gure mahai gainean pilatutako lana dugunik.

Azken finean, legelariok badakigu aringarri hori berezko arrazoiengatik aplikatzen dela, herritar guztiengan eragina duen justiziaren geldotasun endogamikoa dela eta. Eta hori ezin zaie abokatuei egotzi. Beraz, artikuluan ateratzen diren ondorioak bidegabeak, faltsuak eta teknikoki bideraezinak dira.

Eta, amaitzeko, artikuluan zuzen agertzen da (horrek harritu egin gaitu) egoera hori gaituzten ari dela. BJABOren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako akordioa, datu fiskalak lagatzea baimentzen duen irailaren 3ko 4/2013 Foru Dekretu Arauemailea aldarrikatzea (testua argitaratzeko lau urtetan baino gehiagotan ibili gara eztabaida tekniko eta juridikoetan) eta abokatutzak aplikazio informatiko berrietan egindako inbertsioa direla bide, 10.000 espediente inguru kudeatu ahal izango dira, ia-ia osorik, modu telematikoan. Horrela, doako justiziaren espediente elektronikoa sortuko da, izapideak bizkortuko dira eta erabiltzailearentzat onuragarria izango da, modu horretan ez baitu joan beharko administrazio batetik bestera eskatutako dokumentazioa lortzeko. Modu horretan, neurri handian saihestuko dira huts egindako kobrantzen gaiak. Ildo beretik, BJABO elkarrizketak izaten ari da eta konponbideak lortzen saiatzen ari da gaur egungo Justizia Sailarekin eranskinen interpretazioa malgutzeko dauden arazoengatik inguruan (eranskinetan erabiltzaileak eman behar duen dokumentazioa jasota dago). Doako laguntza juridikoaren batzordeetan interpretazio-irizpide erkidea lortu nahi da, berriro ere, erabiltzaileen mesederako. Eta, amaitzeko, EAEANko Gobernu Salarekin eta Arartekoarekin dauden elkarrizketei esker behar den besteko koordinazioa egongo da legelarien eta epaileen artean, eta gaur egungo sistemaren disfuncionaltasunak saihestuko dira. Gerora etorriko da modu horretan inoiz aldarrikatu behar izan ez zen doako justiziaren dekretua osorik edo zati batean indargabetzen duen eraldaketa. Hau doako laguntza juridikoaren alde lan egitea eta apustu sendoa egitea da.

Aurreko ohar guztien ostean, artikulua titularra argitu eta zuzendu dugula uste dugu. Bitartean, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak barkamena eskatzen die abokatutzak nahi ez dituen eta sortu ez dituen egoerak ukitutakoei. Gu horiek gaituzten ahalegindu gara, eta etorkizunean berriro ez gertatzea espero dugu. ●

Konkurtsoen atsekabeak

NOLA ORDAINZEN DIRA KREDITUAK KONKURTSO BATEAN?

CARLOS AIS, *BIABOko abokatu*



Konkurtsu batzuetan, hartzekodunek kredituetatik zerbait jasotzen dute. Ez dira asko izaten, baina “egon badaude”. Beraz, komeni da gure bezero atsekabetuei azaltea zein sistema duen ezarrita Konkurtsu Legeak konkurtsopetako zorrak ordaintzea agintzeko.

Lehenengo eta behin, esan beharko zaie konkurtsu-adierazpenak denboran marra bat margotzen duela, eta horrek funtsezko aldea ezartzen duela konkurtsu-kredituen eta masaren aurkako kredituen artean.

Konkurtsu-egoera ezartzen duen datatik aurrera (ez zordunak eskaera egiten duen datatik aurrera, epaileak konkurtsuan dagoela adierazten duen datatik aurrera baino), konkurtsopetako zordunak hartzen dituen betebeharrak berriak masaren aurkako kredituak dira, eta horien muga-egunari erreparatu behar zaio (printzipio orokor moduan); hala ere, konkurtsuaren aurretik sortutako betebeharrak konkurtsu-kreditutzat hartzen dira, eta horien ordainketa konkurtsu-prozesuaren garapenari lotuta dago, hau da, horien ordainketa egokitu daiteke konkurtsuaren barruan egin beharreko hitzarmenean adostutakora edo likidazio-prozesuari lotuta egon daitezke.

Funtsezko alde hori oinarri hartuta (konkurtsu kreditua vs masaren aurkako kreditua), lehenengo eta behin azalduko diogu kreditu batzuk, konkurtsu-adierazpenaren aurrekoak izan arren, legeak masaren aurkako kreditutzat hartzen dituela. Mota horretakoak dira, besteak beste, langileen kredituak konkurtsu-adierazpenaren aurreko azken hogeita hamar eguneko lanari dagozkion soldatengatik, betiere, zenbatekoak ez badu gairatzen lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza eta konkurtsua eskatu eta adierazteko beharrezko gastu judizialak.

Masaren aurkako gainerako kredituak konkurtsu-adierazpenaren ostean zordunaren jarduerak eragindakoak dira –lan-, gizarte- eta zerga-betebeharrak barne hartuta-, eta indarrean jarraitzen duten kontratuetatik edo lehengoratzte-betebeharratetik eratorritakoak, eta kalte-ordainei dagozkien borondatezko baliogabetzearen kasuan edo konkurtsopetako ez-betetzea egiteagatik (kasu gehiago daude Konkurtsu Legearen 84. artikuluan zehaztuta, baina irizpide orokor horiek nahikoa dira, mementoz, guregana datorren hartzekodunari azalpen orokorra emateko).

Legearen arabera, azken hogeita hamar egunetako alokairuari dagozkion masaren aurkako kredituak berehala ordaintzen dira, eta besteak muga-eguneratzeko ordenaren arabera ordaintzen dira. Hala ere, konkurtsu-administrazioak arau hori aldatu ahal izango du konkurtsorako komenigarria dela jotzen badu (ia beti interesgarriagoa da lehenengo hornitzaile estrategiko bati ordaintzea hain estrategikoa ez den beste bati baino), baina beti pentsatzen bada masa aktiboa nahikoa izango dela masaren aurkako kreditu guztiak ordaintzeko. Legeak ñabardura bat egiten du: atzeratze horrek ezin ditu ukitu langileen kredituak, elikadura-kredituak, zerga-kredituak eta Gizarte Seguran-

tzaren kredituak. Azken finean, marjina gutxi konkurtsu-administratzailearentzat.

Hartzekodunak masaren aurkako kreditu horietakoren bat badu, apur bat optimistak izan gaitzke, kobratzeko aukera txiki bat izango baitu.

Baina Konkurtsu Legea ez dago pentsatuta masaren aurkako kredituen ordainketa arautzeko, konkurtsu-kredituei, hau da, konkurtsu-adierazpenaren aurretik sortutakoei aurre egiteko modua kudeatzeko eta antolatzeko baizik. Eta gure bezero hartzekoduna kasu horietakoren batean badago, pessimistak izan behar dugu, kobratzeko aukera oso urria baita, salbu eta zordunaren ondasunen baten gain benetako bermea duen hartzekodun zorionekoa denean.

Modu erraz eta eskematikoan azalduko diogu bezeroari bere konkurtsu-kreditua kasu hauetakoren batean egongo dela: pribilegiatu berezia, pribilegiatu orokorra, ohikoa edo menpekoa.

Pribilegiatu berezia izango da zordunaren ondasun edo eskubide batzuk ukitzen baditu, hipoteka bat esaterako. Pribilegiatu orokorra izango da zordunaren ondare osoa ukitzen badu, esaterako alokairuak –zenbatekoan muga batzuekin edo zerga-kreditu edo gizarte segurantzako kreditu batzuk, erantzukizun zibiletik eratorriak edo nahitaezko kreditua eskatzen duen hartzekodunarena, adibide orokor moduan). Menpekoa izango da interesak, errekaruak, zehapenak badira, edo hartzekodunak zordunarekin harremana badu (familiakoak, administratzaileak, ehuneko jakin batzuk dituzten bazkideak, taldeko enpresak, etab.).

Eta kasu horietakoren bat ez bada, ohiko kreditua izango da, hau da, guztiak dira ukituak (zenbateko bera izan ez arren, guztiak dira ukituak), eta gure bulegoetara iristen dira konkurtsu batean kredituak nola ordaintzen diren kontsultatzen.

Bada, ordainketa egingo da konkurtsu-prozesuaren barruan zordunaren eta hartzekodunen artean hitzarmena lortzen bada. Ituna badago (hurrengo batean hartzekodunen hitzarmenari buruz hitz egingo dugu), kredituen ordainketa hitzarmenean ezarritakoaren arabera izango da, epaileak onartzen baldin badu.

Akordiorik ez badago, konkurtsuak likidaziora jotzen du. Kasu horretan, zordunaren ondasun eta eskubide guztiak diru bihurtu ondoren lortzen den kopuruarekin (“azken aukia ere saldu ondoren”), hartzekodunei ordaintzen zaie. Lehenengo eta behin, konkurtsu-kredituak ordaindu aurretik, masaren aurkako kreditu guztiak ordaindu behar dira (pribilegio berezia duten kredituak ordaintzeari lotuta ez dauden ondasun eta eskubideen kargura; hau da, hipotekatutako ondasunak “ez dira ukitzen”, horiek bermatzen dituen ondasunaren produktuarekin kobratzen dira). Soberakina badago (gutxitan gertatzen da), pribilegio orokorra duten kredituak ordaintzen dira (gutxitan ordaintzen dira osorik), gero ohiko kredituak (kasuren batean zerbait ordaintzen da), eta horiek guztiak ordaintzen badira, menpeko kredituak ordaindu daitezke (ez dago horrelako kasuen berririk).●

JABETZA INTELEKTUALA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN, “LEGEZKO ESTEKAK” ETA SVENSON KASUA

Maitane Valdecantos

Abokatua, Jabetza Intelektualean, Industria-jabetzan eta IKTen zuzenbidean aditua



a) Sarrera

Informazio Gizartea jaio eta garatu denetik, halako iraultza bat bizi izan dugu jabetza intelektualeko eskubide bidez babesturiko lanak eskuratzeari dagokionez. Lan horien kontsumoa ahalbideratzen duten zerbitzu eta euskarriak ugaritu egin dira, ohiko bide tradizionala gaintitzen duen ustiaketa-bide berria sortu eta bide hori gizartean ezarri da, erabiltzaileen aldetik geroz eta onarpen-maila handiagoa duelarik.

Teknologiaren garapenak areagotu egin ditu “edukiak estekatzen” dituzten plataforma digitalak, egile-zuzenbidearen araubidearen bidez babesten direnak; koiuntura

horrek aurrez aurre jartzen ditu berez guztiz desberdinak diren bi alderdi: jokabide horiek komunikazio publikoko egintzeekin parekatzen dituztenak, eta aurreko aukera hori inondik inora onartzen ez dutenak.

Hori horrela, Europar Batasuneko Justizia Epaitegiak 2014ko otsailaren 13an emandako epaia iritsi zaigu, esteken inguruan argibideren bat eman nahian. Arestian aipatu mugimendu bientzat erabat interesgarria den epai horretan, izan ere, Svea-ko (Suedia) Apelazio-Auzitegiak aurkezturiko judizio aurreko zenbait arazo ebazten dira bertan.

“SVENSSON kasuan” bi alderdiren artean dago eztabaida:



Foto: melenita2012 (flickr con licencia Creative Commons BY- 2.0)

Svensson, Sjögren, Sahlman eta Gadd alde batetik (aurrerantzean SVENSSON), eta Retriever Sverige AB bestetik (aurrerantzean RETRIEVER SVERIGE). Lehenengoak, alderdi auzi-jartzailea, Göteborgs – Posten izeneko egunkarian argitaraturiko zenbait artikuluren egileak dira. Artikulu horiek egunkariaren Interneteko orriaren argitaratu ziren, edukiak modu irekian eskuratzeko plataforman, alegia. Bigarrenak, demandatuek, demanda-jartzaileen prentsa-artikuluak erdietsi ahal izateko esteka-zerrendak (“clickable links”) xertatzen zituzten beraien web orriaren. Demanda-jartzaileek, ondorioz, jarduera horiengatik kalte-ordainak eskatu zituzten, lanaren ustiapena gauzatzen zela argudiatuta.

b) Judizio aurreko arazoak

Hauek dira Sveako Apelazio Auzitegiak aurkezturiko judizio aurreko arazoak:

- 1) Lan jakin baten gaineko jabetza intelektualari dagokion eskubidearen titularra ez den beste pertsona batek aipatu lan horretara jotzeko esteka jartzen badu bere Interneteko orriaren, jendeari publikoki zuzenduriko komunikazio-egintza gauzatzen al du, 2001/29 Zuzentarauaren 3. artikuluko 1. atalaren arabera?
- 2) Lehenengo arazoa baloratzeko orduan, ba al du zerikusirik esteka horren bidez erdiesten den Interneteko orrialdea edonor libreki sartzeko modukoa izateak edota, kontrara, bertara sartu ahal izateko mugaren bat edo beste edukitzeak?
- 3) Lehenengo arazoa baloratzeko orduan, erabiltzaileak lanaren esteka sakatzen duenean, parekoak al dira lan hori beste Interneteko orri batean irekitzea eta uneko Interneteko orriaren irekitzea?
- 4) Europar Batasuneko estatuek ba al dute eskumenik egileari eskubide eksklusiboaren gaineko babes zabalagoa eman, eta publikoari zuzenduriko komunikazioetan 2001/29 Zuzentarauaren 3. artikuluko 1. atalari eratorritako egintzak gainditzeko?

c) Komunikazio publikoa eta publiko berria

Epaia erantzun bateratua ematen die judizio aurreko lehen hiru arazoei. Arazo horiek, gainera, berebiziko garrantzia dute Espainian, makina bat baitira Jabetza Intelektualeko eskubide bidez babesturiko edukiak estekatzen dituzten plataformak. Hala ere, honako kasuaren eta normalean aurkitu ohi ditugun kasuen artean bada funtsezko desberdintasun bat; SVENSSON kasuan, izan ere, eskubideen jabe ziren titularrek beraien argitaratu zuten edukia Interneten. Egitate hori funtsezkoa da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren adierazpenak ulertu ahal izateko.

Epaian jasotzen denez, 2001/29 Zuzentarauaren 3. artikuluko 1. atala, egile-eskubideei eta informazio gizarteko antzeko bestelako eskubideei buruzkoa, honakoan oinarrituta dago: lanaren gaineko komunikazio-egintza publiko guztiak egile-eskubidearen titularrek baimendu behar ditu.

Hori horrela, Auzitegiak ezartzen duenez, eskubideak urratu direla baieztatu ahal izateko, honako bi elemen-

tuak gertatu behar dira: lan bati buruzko “komunikazio-egintza” bat existitzea, eta egintza hori “publiko” bati zuzenduta egotea.

La hipoteca inversa en el derecho español, Sánchez - Ventura Morer, Inés Civitas (Cizur Menor)

HIRIGINTZA

Poder público y propiedad privada en el urbanismo: la junta de compensación, Rastro-illo Suarez, Juan José Reus (Madrid)

La ejecución de las sentencias urbanísticas, Geis i Carreras, Gemma Atelier (Barcelona)



DERECHO LABO- RAL Y DE SEGU- RIDAD SOCIAL

► **Orden ESS/2518/2013, de 26 de diciembre**, por la que se regulan los aspectos formativos del contrato para la formación y el aprendizaje, en desarrollo del Real Decreto 1529/2012, de 8 de noviembre, por el que se desarrolla el contrato para la formación y el aprendizaje y se establecen las bases de la formación profesional dual. (BOE 11-1-14).

El contrato para la formación y el aprendizaje se celebrará a tiempo completo, destinándose una parte de ese tiempo al desempeño de una actividad laboral retribuida y otra parte al desarrollo de una actividad formativa relacionada con el puesto de trabajo que ocupa la persona trabajadora.

El tiempo dedicado a la actividad formativa no podrá ser inferior al 25 por ciento durante el primer año, o al 15 por ciento durante el segundo y tercer año, de la jornada máxima prevista en el convenio colectivo o, en su defecto, de la jornada máxima legal, sin computar los días de vacaciones.

La actividad formativa del contrato para la formación y el aprendizaje será la necesaria para la obtención de un título de formación profesional de grado medio o superior o de un certificado de profesionalidad o, en su caso, certificación académica o acreditación parcial acumulable. La cuantía máxima de las bonificaciones que podrá aplicarse la empresa para la financiación de los costes de formación será la que resulte de multiplicar el correspondiente módulo económico (5 euros para formación a distancia y 8 para presencial) por un número de horas equivalente al 25 por ciento de la jornada durante el primer año del contrato, y el 15 por ciento de la jornada el segundo y tercer año.

► **Decreto 3/2014, de 28 de enero**, para la aprobación de las retribuciones y mejoras voluntarias en situaciones de incapacidad temporal y durante el disfrute de determinados permisos, para el personal empleado público al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. (BOPV 30-1-14).

Desde el 1 de enero de 2012, el personal empleado público incluido en el Régimen General de Seguridad Social ha visto minoradas sus retribuciones en situación de incapacidad temporal en unos porcentajes superiores a la minoración que ha afectado al personal adscrito a (MUFACE) y a (MUGEJU).

El presente Decreto se dicta con la finalidad de eliminar dicho tratamiento desigual, de tal forma que todo el personal al servicio del Sector Público de la Comunidad Autónoma de

Euskadi perciba los mismos porcentajes de retribuciones en las situaciones de incapacidad temporal por contingencias comunes; asimismo, se regulan los supuestos de incapacidad temporal en los que se percibirán el cien por cien (100%) de las retribuciones.

OTROS

► **Orden JUS/18/2014, de 11 de enero**, por la que se modifica la Orden JUS/797/2012, de 29 de marzo, en cuanto al cómputo anual de trabajo efectivo y se aprueba el calendario laboral para el Cuerpo Superior Jurídico de Secretarios Judiciales. (BOE 16-1-14).

► **Real Decreto-ley 1/2014, de 24 de enero**, de reforma en materia de infraestructuras y transporte, y otras medidas económicas. (BOE 25-1-214).

En el Impuesto sobre el Valor Añadido, la tributación de las importaciones de objetos de arte, antigüedades y objetos de colección, así como de las entregas y adquisiciones intracomunitarias de objetos de arte, cuando dicha entrega sea efectuada por sus autores o derechohabientes y empresarios no reventadores con derecho a deducción íntegra del impuesto soportado, se reduce del 21 al 10 por ciento.

Se modifica, igualmente, el texto refundido de la Ley del Impuesto sobre Sociedades, con el objeto de equiparar el porcentaje de retención o ingreso a cuenta aplicable en este Impuesto, respecto del existente en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, para el ejercicio 2014, en el 21%.

Asimismo, el Gobierno ha optado por establecer una quinta convocatoria del Programa (PIVE-5) que se enmarcará en el Plan de Acción de Eficiencia Energética 2011-2020, aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 29 de julio de 2011.

Por último, se aproxima el tratamiento de los trabajadores incluidos en el Régimen Especial de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos que en algún momento del año 2013 y de manera simultánea hayan tenido contratado a su servicio un número de trabajadores por cuenta ajena igual o superior a diez a lo establecido para los trabajadores incluidos en el Régimen General. Asimismo, se reduce en un 1% el tipo de cotización por desempleo para los contratos de duración determinada a tiempo parcial previsto en la Ley 22/2013, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2014.

OTROS DERECHO DE LA UNIÓN EUROPEA

► **Reglamento de Ejecución (UE) no 17/2014 de la Comisión, de 10 de enero de 2014**, por el que se establece el formulario normalizado de notificación de la adopción de una medida especial en virtud del mecanismo de reacción rápida contra el fraude en el ámbito del IVA. (DOUE 13-1-14).

► **Instrucciones prácticas a las partes** sobre los asuntos sometidos al Tribunal de Justicia. (DOUE 31—1-14).

El objetivo de estas instrucciones es permitir que las partes y sus representantes comprendan mejor el alcance de tales disposiciones y discernan con más claridad el desarrollo del procedimiento ante el Tribunal de Justicia y especialmente las exigencias a las que está sometido, sobre todo las relacionadas con la tramitación y la traducción de los escritos procesales o con la interpretación simultánea de las observaciones expuestas en las vistas orales.

Por otra parte, procede incluir en estas nuevas Instrucciones ciertas disposiciones—antes incluidas en la Guía para los abogados, las Instrucciones al Secretario del Tribunal de Justicia o los escritos de convocatoria para la vista—, relativas a la presentación y a la notificación de escritos procesales y al desarrollo concreto de la fase oral del procedimiento

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ZUZENBIDEA

> **ESS/2518/2013 Agindua, abenduaren 26koa**; honen bidez **prestakuntza eta irakaskuntza kontratuen heziketarako** aldeak arautzen dira, hain zuzen, azaroaren 8ko 1529/2012 Errege dekretua garatzeko; azken horren bidez, kontratu mota hori ezartzen da eta **lanbide heziketa bikoitzaren oinarriak** ezartzen dira (BOE, 14-1-11).

El contrato para la formación y el aprendizaje se celebrará a tiempo completo, destinándose una parte de ese tiempo al desempeño de una actividad laboral retribuida y otra parte al desarrollo de una actividad formativa relacionada con el puesto de trabajo que ocupa la persona trabajadora.

El tiempo dedicado a la actividad formativa no podrá ser inferior al 25 por ciento durante el primer año, o al 15 por ciento durante el segundo y tercer año, de la jornada máxima prevista en el convenio colectivo o, en su defecto, de la jornada máxima legal, sin computar los días de vacaciones.

La actividad formativa del contrato para la formación y el aprendizaje será la necesaria para la obtención de un título de formación profesional de grado medio o superior o de un certificado de profesionalidad o, en su caso, certificación académica o acreditación parcial acumulable. La cuantía máxima de las bonificaciones que podrá aplicarse la empresa para la financiación de los costes de formación será la que resulte de multiplicar el correspondiente módulo económico (5 euros para formación a distancia y 8 para presencial) por un número de horas equivalente al 25 por ciento de la jornada durante el primer año del contrato, y el 15 por ciento de la jornada el segundo y tercer año.

> **3/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean eta jakineko baimen batzuk dituzten aldietan jasoko dituzten lansariak eta borondatezko hobekuntzak onartzeko dena (BOPV 30-1-14).

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean dauden langile publikoek MUFACEra eta MUGEJUrak atxikitako langileek izan duten murrizketa-portzentajea baino handiagoa jasan dute, aldi baterako ezintasun-egoerari dagokionez Dekretu honen helburua trataera desberdin hori deuseztatzea da, gertakizun arruntengatik aldi baterako ezintasun-egoeran dauden Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile guztiak lansari-portzentaje berdinak jaso ditzaten; era berean, lansarien ehunetik ehunekoa (%100) jasotzeko eskubidea emango duten aldi baterako ezintasun aldiak arautzen dira.

BESTEAK

> **IUS/18/2014 Agindua, urtarrilaren 11koa**, honen bidez, batetik, JUS/797/2012 Agindua, martxoaren 29koa, aldatzen da, **urteko benetako lana zenbatzeari** dagokionez, eta, bestetik, **Idazkari Judizialen Goi Kidego Juridikoaren lan-egutegia** onartzen da (BOE 14-1-16).

> **1/2014 Errege dekretu-legea, urtarrilaren 24koa**, azpiegitura eta garraio gaietan **erreformak eta bestelako ekonomia neurriak** ezartzen dituen (BOE, 14-1-25).

En el Impuesto sobre el Valor Añadido, la tributación de las importaciones de objetos de arte, antigüedades y objetos de colección, así como de las entregas y adquisiciones intracomunitarias de objetos de arte, cuando dicha entrega sea efectuada por sus autores o derechohabientes y empresarios no revendedores con derecho a deducción íntegra del impuesto soportado, se reduce del 21 al 10 por ciento.

Se modifica, igualmente, el texto refundido de la Ley del Impuesto sobre Sociedades, con el objeto de equiparar el porcentaje de retención o ingreso a cuenta aplicable en este Impuesto, respecto del existente en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, para el ejercicio 2014, en el 21%.

Asimismo, el Gobierno ha optado por establecer una quinta convocatoria del Programa (PIVE-5) que se enmarcará en el Plan de Acción de Eficiencia Energética 2011-2020, aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 29 de julio de 2011.

Por último, se aproxima el tratamiento de los trabajadores incluidos en el Régimen Especial de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos que en algún momento del año 2013 y de manera simultánea hayan tenido contratado a su servicio un número de trabajadores por cuenta ajena igual o superior a diez a lo establecido para los trabajadores incluidos en el Régimen General. Asimismo, se reduce en un 1% el tipo de cotización por desempleo para los contratos de duración determinada a tiempo parcial previsto en la Ley 22/2013, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2014.

EUROPAKO ERKIDEGOKO BESTELAKO ZUZENBIDEA

> **Batzordearen (EB) 17/2014 brtearazpen erregelamendua, 2014ko urtarrilaren 10ekoa**, honen bidez, **BEZaren inguruan iruzurraren kontrako neurri berezia hartu dela jakinarazteko erabiltzen den idazki eredu normalizatua** ezartzen da (EBAO, 14-1-13).

> **Alderdiei jarraibide praktikokoak ematea, Justizia Auzitegian** dauden auziei dagokionez (EBAO, 14-1-31).

El objetivo de estas instrucciones es permitir que las partes y sus representantes comprendan mejor el alcance de tales disposiciones y discernan con más claridad el desarrollo del procedimiento ante el Tribunal de Justicia y especialmente las exigencias a las que está sometido, sobre todo las relacionadas con la tramitación y la traducción de los escritos procesales o con la interpretación simultánea de las observaciones expuestas en las vistas orales.

Por otra parte, procede incluir en estas nuevas Instrucciones ciertas disposiciones —antes incluidas en la Guía para los abogados, las Instrucciones al Secretario del Tribunal de Justicia o los escritos de convocatoria para la vista—, relativas a la presentación y a la notificación de escritos procesales y al desarrollo concreto de la fase oral del procedimiento.



LA INTRUSA
ERIC FAYE



Editorial Salamandra

Egilea:
Éric Faye

Itzulpena:
José Antonio Soriano

Editorial Salamandra
107 or.; 12€

LA INTRUSA

Éric Faye (Limoges, 1963) idazle frantziarraren eleberrri laburra da "La intrusa". 2008an Japonian gertatutako gertaera erreal batean oinarrituta dago. Urte hartan, aldizkari japoniarrek albiste harrigarri baten berri eman zuten. Mutil ezkongabe batek, aldian-aldian, bere etxea okupatu zuen neska gazte batekin partekatu zuen bizilekua, ezer jakin gabe. Auzoko arlotea zen neskatoa, eta zorrotzasun izugarri aztertu zituen mutilaren ohitura eta ordutegiak. Laster ohartu zenez, bulegora traje eta maletarekin joaten zen gaztearen bizimodua erraz aurreikusteko modukoa zen. Ordutegi bera errepikatzen zuen, egunero-egunero. Beraz, neguko goiz batean, lanera joateko tranbiara igotzen ikusi zuenean, bizilekura sartzea erabaki zuen. Etxeko gauzen artean kuxkuxean zebilela, itxita zegoen gela bat aurkitu zuen, gutxi erabiltzen zena, antza denez. Gonbidatuentzako gela zen antza, egunero erabiltzen ez zena; eta hutsik zegoen armairu handi bat zegoen bertan.

Hotzetik ihes egiteko eguneko aterpe izan zen hasieran, baina laster bilakatu zen babeserako leku egonkorrean. Sagutxoan moduan, kontu handiz, hamabi hilabete luzez egon zen bertan. Mutil gazteak lan egin bitartean, neska isil-isilik ibiltzen zen etxetik, irakurtzen, eta baita janaria prestatzen ere. Ondoren, dena jaso eta txukun uzten zuen. Mutilaren itzulera-ordua iristear zegoenean, logelako armairu barruan ezkututzen zen, bihurrikarien moduan. Ilunpean eta isil-isilik, hurrengo eguna iritsi arte.


Eric Faye-k laster ikusi zuen istorio horrek zuen pagotxa. Literaturaren alorrean aukera izugarriak zituen. Eta ondo baino hobeto aprobetxatu zuen aukera egileak. Kazetaria da Faye, eta asko nabari da hori haren idazteko moduan. Garbia eta zehatza da. Ez da beste ezer behar. Istorioa, berez, oso indartsua da, eta ez dago beste ezerekin jantzi beharrik. Eta halaxe egin du Fayek. Argi guztiak istoriora zuzentzen ditu, irakurlea erabat harrapatuz. Baina istorioarekin batera, sentimenduak aktibatzen gai ere bada Faye. Zure espazio intimoena bortxatzearen sentimendua, izan ere, aztoratzailea da oso. Imaginatu beste inoren begi eta ezpainak zure hozkailuan, zure ohe-mahaian, zure bainugelan... Pentsa ezazu lo zauden bitartean, hormaren bestaldean, norbait zure mugimenduak entzuten ari dela.

Obraren barrenak ezagutzera eman gabe, soilik esan, Fayek sorpresa handi bat gorde duela irakurlearentzat. Eleberrriaren azken aldera, ustekabeko gertaera baten ondorioz, istorioak mailaz igoko du. Anekdotak izatetik, gertaera soila izatetik, gehiago edo gutxiago harrituko gintuzkeen albistea izatetik, goragoko maila batean dagoen zerbait izatera pasatzen da obra hau: jabetza eskubideari buruzko gogoeta egiteko deia, hain zuzen ere. Letren Frantziako Akademiak laster batean ikusi zuen eleberrri honen balioa; hori horrela, eleberrri onenaren saria eman zion 2010ean.

¡Ojalá vivas todos los días de tu vida!

Jonathan Swift

ACANTILADO



Natalia Ginzburg
Las pequeñas virtudes
TRADUCCIÓN DE CELIA FILIPETTO

Egilea:
Natalia Ginzburg

Itzulpena:
Celia Filipetto

Editorial Acantilado
164 or.; 13,90€

LAS PEQUEÑAS VIRTUDES

Azken hamarkadetan italiar literaturan arrakasta gehien izan duen liburuetakoa bat da "Las pequeñas virtudes". Eta izenburuari men eginez, bere txikitasunean handia da liburu hau. Ahoz ahokoaren bidez egin da ezaguna. Promozio-kanpaina izugarririk gabe. Ez du halakoen beharrik. Hala ere, obra hau bere osotasunean gozatu ahal izateko, Natalia Ginzburg-en (Palermo, 1916 – Erroma, 1991) zenbait datu biografiko birpasatzea komeniko litzateke.

Nataliak bere azalean bizi izan zituen faxismoa eta bigarren mundu gerra. Eta urte latz haietan, galtzaileen aldean egotea suertatu zitzaion gainera. Erresistentziarekin bat egin zuen, zalantza izpirik gabe. Eta gogor pairatu zuen erabaki hura hartu izana. Jazarpenen ostean, deportatu egin zuten. Orotariko estualdiak bizi izan zituen. Bere lehenengo senarra, Leone Ginzburg, atxilotu, torturatu eta hil egin zuten alemaniarrek. 1944. urtea zen, eta Nataliak hiru- seme-alaba zituen ordurako. Bizitako esperientzia horiek idazteko modua finkatu zioten aurrerantzean. Behin eta berriz errepikatzen duen moduan, ez dago egonkorra den ezer. Dena da hauskorra, eta hondatzeko modukoa.

1945ean, gerra bukatzean, bizimodu berri bati ekin zion. Erromara joan, eta Einaundi argitaletxean hasi zen lanean; bertan argitaratu zituen bere lehendabiziko liburuak. Orduan egin zen Cesare Pavese idazlearen lagun min. Inspirazio-urteak eta lagun artekoak izan ziren. Ginzburg-en

literatura hazi egin zen tarte horretan, baina Pavese idazle bakarti eta tristeak bere buruaz beste egin zuen urte gutxiren buruan. Beste kolpe latz bat. Aurrera egin zuen ordea. Nataliak literaturaren bidean jarraitu zuen. 1950ean, eta gorabehera askoren ostean, halako egonkortasun bat erdietsi zuen. Gabriele Baldini literatura ingeleseko irakaslearekin ezkondu zen. Egonaldi luzeak egin zituen Ingalaterran; beste bi seme-alaba izan zituen, eta idazle moduan tinkatzea lortu zuen.

Natalia Ginzburg-en biografian osteratxoa egin dugu; izan ere, "Las pequeñas virtudes" idazle honen bizitzako saiakeraren parekoa litzateke. Biografia antzeko bat. Ikuspegi formaletik, liburuak hamaika istorio barne hartzen ditu, horietako bakoitzaren argitaratze-data zehaztasunez errespetatuz. Garaiko aldizkarietan argitaratu ziren guztiak, 1942 eta 1962 urteen artean. Istorio horiek irakurtzearekin batera, jakingo dugu, zer nolako bizimodua izan zuen Nataliak. Italiako Abruzzo eskualdeko erretiroa, bakardadea, balioak (bikaina "Los zapatos rotos" izeneko istorioa), Paveseren heriotza, seme-alabekiko maitasuna, bokazio literarioa eta ofizios idazle izatea, Londonen bizitako urteak, seme-alaben hezkuntzan kontuan izandako balioak...

Idazlan labor bezain zintzoak. Egia hutsak. Ezinbestean eduki beharreko liburu baten aurrean gaude, zalantzarik gabe. Gogorra eta samurra, aldi berean.



LA GRAN BELLEZA

Paolo Sorrentino

Duela ez asko *Los inútiles* filma izan genuen mintzagai. Izan ere, filma hori erabili genuen Fellini-ren hasierako garaia errebendikatzeke, hau da, mundu mailan ezaguna egin aurretik landutako zinemagintzari dagokiona, hain zuzen ere. Alpeez bestaldeko penintsulan, non bes-tela, haren arrastoak bizi-bizirik daude, gaur egun ere. Are gehiago, felliniar terminoak inoiz baino indar handiagoa duela esan genezake; batez ere, italiar pelikulez dihardugunean. Esan beharra dago, hala ere, zinemagintzarekin lotutako kalifikatzaile hori (felliniar), ez dela beti modu egokian erabili izan.



Kasu honetan, aipatu termino hori guztiz justifikatuta dago, ingelesa ez den beste hizkuntza batean egindako filma gisa jaso zuen Oskarra justifikatuta dagoen bezalaxe. Zalantzarik gabe, egileak Oscarren hitzordura eraman-

dako pelikulen artean inteligenteena.

Jep Gambardella 65 urte bete berri dituen idazle erretiratua da, dandya, asteburuetako egunkarietan eranskinak idazten dituen kazetari zorrotza, bizizalea, Koliseoaren parez pare dagoen atiko baten jabea; denetarik ikusi du bizitzan, eta ez du ezerk harritzen, eta zahartzaroak bete batean harrapatu duenean, partida ia osorik jolastu duenean, aurretik geratzen zaizkion urteak duintasunez bizitzea da bere gurari bakarra. Eta zuzendariaren hitzak gogora ekarri, benetan garrantzitsua litzatekeena baino ez du bilatu nahi: gauzen edertasuna, benetako edertasuna.

Unibertso hutsal batean bizi da, bera bezalakoek inguratuta. Baina badu berezitasun bat, ordea. Gainontzekoak baino zorrotzagoa denez, jakin badaki, ingurukoak oharitu ere egiten ez diren arren, bere

bizitza zakarrontzira bota duela. Behin baino gehiagotan esaten du gauza bera filmean zehar. Horrenbeste artabururen artean, nostalgian pisuak eta muturreko sentiberatasunak eragin izugarria dute zentzudun dandy honen gain. Beraren galbide bakarra Erromako gauak, eta gau horiek eskaintzen dizkioten tentazio anitzak dira; hala ere, ez dago horiei uko egiteko prest, inola ere.

Parte hartu ohi duen festetako techno musika artean, Raffaella Carra apur bat batetik, reggaeton pixka bat bestetik, eta halako hitzorduetan aurki litezkeen pertsonaia hutsalez inguratuta; baina beti dago sentiberatasunarentzako tokitxo. Edertasunez beteriko eszenak egon badaude, eta ez gutxi!

Bai pertsonaia bitxi eta nabarmen horien nondik norakoak, bai zenbait sekuentzia, Felliniren garai onenen parekoak dira. Gure existentziaren hutsaltasunari buruzko metafora.

Koliseoak berak baino metro karratu gehiago dituen terraza batean ospatzen da Erromako festa amaigabea; bertan, nahi haina kokaina, bestelako substantzia, alkohol... Laburbilduz, gutxiak-gutxiak desagertze bidean doan zentzugabeko bizitza: azken finean, dekadentzia bera ere ederra izan daiteke.

Zalantzarik gabe, zuzendariaren nekaezinezko talentuak badu zeresanik film hau sostengatzeko orduan; izan ere, ahaztu ezinezko makina bat egoera sortzeko gai da, irudi hipnotikoak, eszena sinesgaitzak, plastikotasunez beteriko irudiak. Ahaztu dezagun narrazioaren sintaxia, ez baitago ez hasierarik, ez korapilorik, ez amaierarik: eszena-pilaketak, nahasi xamarra dirudien arren, lagundu besterik ez dio egiten Jeppe-ren hausnarketa aldiari: festarik festa ibili arren, bizitzak beti uzten du edertasuna begiztatzeko tartea. Burgesia erromatarraren ohiturei buruzko zertzeladak antologikoak dira; xehetasun larregi akaso, gidoilarien irudimen hutsa izateko.

Erromako hiria bera bezain kaotikoa da pelikula. Baita ederra ere.

ANGEL FACE

Otto Preminger, 1952

Zazpigarren arteko harribitxiak bilatzeko gure borroka honetan, afizionatuentzat aurkitzeko guztiz errazak ez diren filmen artean, zinema beltzeko pelikula bikain bat aipatu nahi genizueke; ez da ia inork ezagutzen ez duen horietakoa, baina ezta apalategira joan eta begi aurrean izan ohi ditugun horietakoa ere.



Ez dago aipatu genero horretako "hamar" onenen artean, kritikoen ustez badirelako hobekak diren beste batzuk (oke-rreko iritzia); zuzendariak egindako lanen artean entzutetsuenetakoa ere ez da (Preminger-ek egindako pelikulen artean askoz lehenago aipatzen dira, esaterako,

Laura, Río sin retorno, El hombre del brazo de oro, El cardenal, Anatomía de un asesinato...).

Hainbat arrazoiengatik da guretzat azpimarratzekoa: Robert Mitchum-ek egiten duen paper ikaragarriagatik (bere karre-rako onenetarikoa, zalantzarik gabe), eta genero beltzean ohikoa izaten ez den gauza bitxi batengatik; izan ere, kasu honetan, "femme fatale"-a ez da nahasketa guztien eta ekintza maltzurren egilea. Tarteko figura bat arduratzen da horretaz, hau da, hipnotizatuta eta liluratuta dagoen Mitchum; inoiz ez da izan, zinemaren munduan behintzat, iruzurpean horren erraz erortzen den horietakoa.


Baina batez ere eszenaritzea da gure ustez primerakoa, baita

gidoia ere: horrenbeste maltzurkeria eta tragediaz hitz egitea, maitagarrien ipuin eder bat balitz bezala. Hau da, aintzat hartzekoa hasiera-hasierarik halako tentsioa sorraraztea ikuslearengan eta, era berean, nahaspila guztia apurka-apurka ebaztea, etxe izugarri horretako lau hormen artean, gurasoen alaba lodikote Jean Simmons bizi den horretan, ezer gertatuko ez balitz bezala.


Erabat desesperagarria da, ikustea, nola Mitchum onak bere burua limurtzen uzten den, nahiz eta guk jakin guztiaren gainean dagoela; hartzen duen erabaki bakoitzeko urrats berri bat ematen du amildegira bidean, amaiera katartiko eta, are garrantzitsuagoa dena, ustekabekora iritsi artean. Horren guztia- ren errudun, Premingerrek kontu handiz irudikatu eta Simmons-ek inork ez bezala interpretaturiko *femme fatale* hura.

Genero beltzaren unibertsoan emakumeak horrela birdefinitzea benetan bitxia da. Jean Simmons-ek ez du sekula hatz bat bera ere mugitzen; azpijokoetan pentsatu, besterik ez du egiten. Pelikula erakargarri egiten duten osagai ugari daude: jeloskortasun konpultsiboa, amaordeak, aita on-puskak, bukaerarik gabeko geletan jotzen diren pianoak...; modernoa eta behin eta berriz aipatua. *Stoker*-ek erreferentzia ugari har-tu du film honetatik.

Zentzumenentzako gozamina, luzera egokiduna (90 minutu), interpretazioari dagokionez gailurrean dauden aktoreekin, gorabehera juridikoentzako tartea ere baduena (bikaina abokatuaren papera) eta, batez ere, irudimenez beteriko bukaerekin, istorioak unean-unean eskatzen duenarekin; horren erraz ikusten ez diren elementuak, alegia.



VAN MORRISON – Moondance (Expanded edition)



Cd bikoitza
(Warner)
24 abesti

Besfast-eko lehoiaren inguruan, badira klasikoak diren hiru baieztapen. Jendaurrean larregi agertu da azkenaldian, espainiar agertokietan batik bat; eta horrek interesa galtzea eragin du ikusleengan. Bere karrerako lehen zati bikainari esker, 74ko *Veedon Fleece* arte doana gutxienez, erreferentziatzko izen bilakatu zen hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren musika kanoa eraikitzeari dagokionez. Eta bere lanik onena *Astral Weeks* da.

Azken baieztapen hori da azkenaldian eztabaida gehien sorrarazi duena. Duela pare bat urte, *Tupelo Honey* berriz masterizatu zenean, batek baino gehiagok zalantzan jarri zuen, modu apalean bada ere, ordura arte zalantza ezinezkoa zena. Eta orain, *Moondance* izeneko proposamen berri eta gozo hau datorkigu, ezezaguna den materialarekin batera: estudioko sesioetan hasiera batean bertan behera utzitako erregistroak, batik bat. Ondorioz, asko dira honako produkzioa Morrisonen lanen artean gailurrean kokatzea eskatzen duten ahotsak.

Eztabaida antzua da seguruenik. Azken finean, berdin dio; izan ere, argi izan behar dugu disko izugarriak direla, ezinbestekoak, inoiz dezepzio-rik eragiten ez duten lagun nekaezinak. Gainera,

denbora luzez ahaztuta egon ondoren, horien magia biderkatu egiten dela esan genezake. Hori bai, *Astral*-ekin alderatuz gero, *Moondance* askoz ere abegitsuagoa da, exijentzia gutxiagokoa. Hura, izan ere, konpromisoa eskatzen duen diskoa zen, entzuleari halako prestaketa eta diziplina eskatuaz. Kasu honetan ez da halakorik gertatzen. Hasierako segundoetatik gozatzeko moduko lana da, "And It Stoned Me" entzuten hastearekin batera. Lehendabiziko abesti horretatik abiatuta, jazz, rhythm & blues eta soul fusioez blai egingo gara, xehetasun bakoitzean transmititzen duen poesiaz, produkzio garbi eta zehatzaz, edota Morrisonen ahots ezin hobeaz. Gozamina bermatuta dago. *Moondance* lanak duela berrogei urte baino gehiago asmatu zuen gaur egun askok bilatzen dutena, hau da, ihes-kortasunaren eta berehalakotasunaren dikta-duraren aurkako aterpe nahiz babes. Bilduma perfektua da, anitza, eta abestiak banan-banan hartuz gero, ezin hobeak dira. Denak batuz gero, ordea, hobetu ezinezkoak. Bada beste edizio bat, deluxe delakoa, 4 konpaktu eta blue-ray batez osatua. Honako honekin alderatuz gero errepikakorregia akaso; jatorrizko bilduma osatzen duen materialaren aukerako toma ugari jasotzen ditu, batik bat. Gutizia bat (garestia, hori bai) bilduma zaleentzat.

SANTIAGO DELGADO Y LOS RUNAWAY LOVERS – Monovolumen



Cd
(Hanky Panky)
12 abesti

Hemen datoz berriro Bilboko giro on eta rock-kanroleroaren aitzindariak, taldean zenbait aldaketa egin ostean. Ez aldaketa arraro eta muturrekorik, guztiz kontrakoa baizik; taldekideen aldaketa diskretua, etxean bertan atondu dena: Gorka Mirantes perkusio jolea atera da taldetik; Barrainkua kalean dagoen Evidence-ko sukalde berritzailean jardungo du aurrerantzean. Sartu dena, berriz, rockin' eszenako klasiko bat, Oscar Calleja, urteetan Dinamita pa' los pollos taldeko baxu jolea izandakoa. Aldaketa horrek, baina, ondorio benetan interesgarria izan du soinuari dagokionez.


Hala ere, Runaway taldearen betiko oinarriak ez dira batere aldatu. Orain arteko bideari tinko jarraitzen diote; abesti xumeak, dibertigarriak, betiko rock and roll musika omentzen dituztenak, parafernalia guztiarekin (Cash, neska sexyak, tatuaiak, surfa, Ramones bezalako ikonoak edota oraintsuagokoak, Nick Curran gaixoa bezalakoak...). Eta agian horixe bera da taldearen meritu nagusia, hau da, ustez oso mugatuta dagoen proposamenarekin aurrera jotzea eta,

hala ere, etapaz etapa aurrera egitea, oinarri-zko premisak mantenduz. Abesti abegitsuen bidez entretenitzea, umore zuridunak, entzuleengan irribarrea sorrarazteko gai direnak eta, aldi berean, karrera bitxi bat indartu besterik egiten ez dutenak, handinahirik gabe, eta modu egonkorrean.

Litekeena da Delgadoren izatea meritua, modu xume eta bitxian idazten baitu; gainera, uka ezinezkoa da orain arte egin dituzten bertsio eta/edo egokitzapenen hautaketa (hona hemen horietako batzuk: Pistones, Celentano, Milos, Sirex...). Era berean, kontuan hartzekoa da taldeko gainerako kideek beraien kemen kontrolatu izana (zuzenean noizean behin kontrakoa gertatzen zaien arren) eta oraingo honetan halako fintasun diskretua mantendu izana, diskoa entzule mota guztientzako moduko goxokia bilakatzeko. Disko benetan polita da, azaletik bertatik hasita (Bilboko "Azulito" mikro-bus mitokia omentzen du); orokorrean, antzinako gauza guztiak omendu dituzte, orainean probetxuzko hondarrak utzi dizkigutelako.



CARMEN



62. denboraldiko bosgarren izenbururako Opera Lagunen Bilboko Elkarteak opera-errepertorioko la nezagun eta gustukoenetakoa hautatu du. Askoren ustez, lan hau mundu osoan ospetsuena den eta gehien interpretatzen den opera frantsesa da. Taularatzen den bakoitzean, arrakasta handia lortzen du. 1875eko martxoaren 3an estreinatu zuten Pariseko Ópera-Comique-n, eta kritika negatiboak jasoz ituen. Laugarren edo bosgarren emanaldiaren ostean ia-ia kendu egin zuten. Hori saihestu egin zuten, eta lehen denboraldian 48 emanaldi egin ziren guztira. Hasierako porrot horrek Georges Bizet konpositorearen heriotza bizkortu zuen neurri batean. Konpositorea 36 urte zituela hil zen bihotzekoak jota, bere lana zein ospetsua izango zen jakin gabe.

Carmen lau ekitaldiko opera komikoa da, Bizeten musikarekin eta Ludovic Halevy eta Henri Meilhac-en libretoarekin. Prosper Mériméeren lanean oinarrituta dago, eta Alexander Pushkinen "Los Gitanos" poema narratiiboaren eragina du. Lanean, elkarrizketa hitz egindakoak, errezitatuak eta musika-piezak tartekatzen dira. Lan honekin, Bizet opera komiko konbentzionaletik askatu zen, komikoa eta tragikoa bateratuz, eta batzuetan opera-izaera ahaztu ahal zen dramaren indarrari esker.



Lanaren istorioa Sevillan girotuta dago 1820. urtearen inguruan. Protagonista izaera basatiko ijito ederra da. Carmen askeak Don José kaboa limurtzen du, okupazio-armada frantseseko soldadu trebetasunik gabea. Carmenen eta kaboaren arteko harremana dela-eta, soldaduak aurreko maitasunari uko egiten dio, nagusiaren aurka altxatzen da eta iheslari bihurtuta, ijito ederraren kontrabandisten taldean sartzen da. Azkenean, ijitoak Escamillo toreatzailea begiz jotzen duenean, Don Josék hil egingo du.


Operaren arrakastaren arrazoi nagusietako bat da libretoan dauden aldaketa handiak: eszena tragikoak alde batetik, eta pasarte ari-nagoak bestetik, komikoak batzuetan. Oreak dago zalapartako eszenen (abesbatzekin eta figuranteekin) eta beste eszena intimo batzuen artean, horietan bakarlariak lehen planora igarotzen direla. Musika adierazkorra, dotorea eta kolorista da, eta doinuak buruz ikasteko errazak dira.

Eszena-zuzendaritza Calixto Bieito OLBEn debuta egiten zuen eszena-zuzendari espainiarraren esku egon zen, eta ekoizpenaren ardura Gran Teatre del Liceu, Teatro Massimo di Palermo, Teatro Regio di Torino eta Veneziako Teatro La Fenicek izan zuten. Biak ala biak ez ziren batere egokiak izan. Bieitok sor-

tutako eszena sexu-eduki handikoa izan zen, eta batzuetan arrunkeari ere hurbildu zen (agertokiko gizonezko guztiak animalia emegose moduan erakutsi zituen, eta hirugarren ekitaldiko atarikoan agertokian gizonezko bat biluzik agertu zen bular-paseak eginez irudizko zezen bati kapoterik eta muletarik gabe). Horren aurrean, lerro hauek idazten dituenak operaren zati batzuetan txistu egin zuten eta ostikoak jo zituen zoruan. Oraindik ez dakigu oso ondo non kokatu zuen ekintza eszena-zuzendariak. Izan ere, Espainian geundela ikusteko, bandera gorri-horia eta Osborneren zezena jarri zituen agertokian, baina hortik aparte, eszenaratzea guztiz desegokia izan zen lanaren argudioari jarraitu ahal izateko. Hotzegia izan zen, eta ez zituen islatu lanaren giro andaluziarrak eskatzen dituen koloreak, grina eta argia. Ikusleek ezin izan genuen ikusi partitura osoan ageri den kolore-sorta espainiarra islatzeko arraza eta antzezpen natural eta folklorikoa. Bigarren ekitaldian ere ez ziren aurkeztu Carmenek abestu eta dantzan egiten duen Lilas Pastiaren taberna; horren ordez, ekintza eremu antzeko batera eraman zuten (dekoratua oso urria da eta), mercedes zaharkitu baten ondora, eta bertan abestu eta dantzan egiten da. Beraz, ez zeukan Sevillako eta Andaluziako girorik inondik inora.

Musikari erreparatuta, operak bete-betean asmatu zuen. Pezoian, OLBEn debuta egiten zuten Jean Yves Ossonce zuzendari britainiarraren batuta, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren gidaritzapean. Partitura dinamiko honen irakurketa oso zuzena egin zuten, eta egileak asko zaindutako neurritasuna eta zehaztasuna islatu zituen. Une eta egoera bakoitzari kolore egokia ematen jakin zuten, hala nola kaleko umeen abesbatza, kontrabandisten boskote distiratsua eta martxaren erritmoan egindako III. ekitaldiko kontzertante handia.





Bakarlariei dagokienez, oro har, ikusleentzat eta niretzat oso egokiak izan ziren guztiak.

Ana Ibarra mezzosoprano espainiarraren "Carmen" pertsonaia atsegina izan zen, eta konbentzitu egin zuen. Mezzo handia dela erakutsi zuen, bizkortasuna eta koloratura dituela. Papera oso ondo interpretatu zuen, ahotsean eta interpretazioan beharrezko indarra eman zion pertsonaia hain berezia sinesgarri egiteko. Erdigune oso aberatsa eta tinbre handikoa duela, akutu irmoa duela eta koloratura eta apaindurak menderatzen dituela erakutsi zuen. Hori eszena-eginkizun handiari lotuta, interpretazioa oso aprobetxagarria izan zen. Aipatzekoak dira Habanera ospetsuan (pertsonaia sarrera egiteko erabiltzen du) izandako parte-hartzea, "L'amour est un oiseau rebelle", eta "Prés des remparts de Séville" seguidilla, biak lehen ekitaldikoa.

Alfredo Kraus maisu handiaren dizipuluak, Aquiles Machado tenor venezuelarrak, "Don José" pertsonaiaren interpretazio ona egin zuen. Eszena-eginkizun aipagarriarekin batera, ahots indartsua eta oso distiratsua erakutsi zituen, ahots-teknika handiarekin. Parte-hartze guztietan maila handia erakutsi izuen. Bereziki aipagarria izan zen "La fleur que tu m'avais jetée" aria, italiar estiloan kantatua, estilo frantsesaren falsetonea saihestuz. Oso zaila den si bemola egin zuen, nire gozamenerako.

Istorioko beste bi pertsonaia aktiboak, Micaela eta Escamillo, libretistek ekintzaren erdiguneko maitaleentzat "etsai" moduan sortutakoak, oso ondo interpretatu zituzten.

Carlos Álvarez baritono espainiarraren "Escamillo" oso gustukoa izan zuten ikusleek. Berotzeko denbora behar izan zuten arren, kantu-edertasuna erakutsi zuen, anplitude handiko ahots leunean oinarritua. Igorpen oso ona agertu zuen ahotsaren hedadura osoan. Ikusleekin bete-betean bate gin zuten laneko parte-hartze garrantzitsuenetan, eta oso ondo aritu zen bigarren ekitaldiko

"Toréador en garde" ospetsuko notarik altuenekin.

OLBEn debuta egin zuen Maite Alberola soprano valentziarrak "Micaëla" pertsonaiaren interpretazio egokia egin zuen, interpretazio-dohain handiei esker. Nekazari apalaren garbitasun biguna oso ondo islatu zuen, baina ahots mugatua duela ikusi zen, hedadurari dagokionez. Erdialdean indar handiz abestu zuen, baina erregistro altuan apur bat justu ibili zen. Bereziki aipagarria izan zen "Je vais voir de prés" aria.

Gainontzekoek "bigarren mailako" musika-eginkizunak modu egokian bete zituzten. Bereziki aipagarriak izan ziren Elena Sancho soprano donostiarrak egindako "Frasquitaren" interpretazioa eta Itxaro Mentxaka mezzo lekeitiarrak egindako "Mercedesen" interpretazioa.

Bilboko Operaren Abesbatzak maila handia erakutsi zuen obra osoan, eszenan (eszena-zuzendariak jarritako oztupoak gainditu behar izan zituen arren) zein musikari dagokionez. Nabarmenezkoak dira Koral Elkartearen Kontserbatorioko Abesbatzako gazteak, parte-hartze guztietan oso ondo eta naturaltasun osoz aritu baitziren.

Laburbilduz, Carmen oso egokia musikari erreparatuta. Baina ekoizpenak eta eszenaratze "originalak" berezko izaerarik gabe utzi zuten.

"Carmen"

Aktoreen zerrenda: Ana Ibarra (mzz); Aquiles Machado (t); Maite Alberola (s); Carlos Álvarez (b); Elena Sancho (s); Itxaro Mentxaka (mzz); Vicenc Esteve(t); Damián del Castillo(b). Bilboko Operaren Abesbatza; Koral elkarteko Kontserbatorioko Abesbatza; Euskadiko Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Calixto Bieito; Musika-zuzendaritza: Jean Yves Ossonce; Lekua, Euskalduna Jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

¿Perdido entre tus expedientes? ¿Sientes que se te escapa el tiempo?

¡Todo lo que necesitas está en **Kleos PREMIUM**,
porque sabemos que el tiempo es importante para ti!

Kleos + laleydigital.es

La **seguridad** de tener el mejor **resultado**
en el menor **tiempo** posible



Porque Kleos PREMIUM es:

- **SIMPLICIDAD:** sencillo, rápido y fácil de usar. Comienzas a trabajar en cuestión de minutos con solo disponer de acceso a Internet.
- **SEGURIDAD:** Confidencialidad garantizada, estricto cumplimiento de la LOPD.
- **LIBERTAD:** trabaja desde cualquier lugar y en cualquier momento. Además de acceder desde tu PC, podrás acceder a **Kleos** desde un iPhone, un dispositivo smartphone de Android o desde una tableta tipo iPad.
- **TRANQUILIDAD:** siempre actualizado y diariamente hacemos copias de seguridad sin que te tengas que ocupar de nada.



Kleos + laleydigital.es: la unión perfecta

© UNICEF/WHO/2011-1312/Marco Dominio

SI PUDIERAS SALVAR SU VIDA,
¿LO HARÍAS?

HAZTE SOCIO DE UNICEF
HOY PUEDES CONVERTIRTE EN LA PERSONA
MÁS IMPORTANTE PARA ÉL. TE NECESITAMOS.

902 31 41 31 | www.unicef.es/hazte-socio

unicef 